



USURBIL  
2021 EKAINAK 11 - UZTAILAK 17





# usurbilkultura.eus

Eskuratu zure sarrerak!  
¡Obtén tus entradas!

1-Erregistra zaitez webgunean.  
Regístrate en la web.

2-Eska itzazu nahi beste ekitalditara joateko sarrerak\*.  
Solicita tus entradas para acudir a tantos eventos como desees\*\*.

3-Aukeratutako ekitaldi guztien artean zuretzat lehentasun diren bi ekitaldi hautatu ahal izango dituzu: zozketa egiterakoan, kontuan izango ditugu.

Podrás priorizar dos eventos entre todos los que selecciones: a la hora de hacer el sorteo, lo tendremos en cuenta.

4-Ekitaldia baino bi egun lehenago, gutxienez, mezu elektronikoko bat jasoko duzu, sarrerak egokitu zaizkizun edo ez jakinarazteko.

Al menos dos días antes de cada evento solicitado, recibirás un email para hacerte saber si te han tocado o no las entradas.

\* Joan zaitzakeela ziurtatzea komeni da, sarrerak alferrik ez galtzeko: jokatu arduraz.

\*\* Es conveniente asegurar que puedes asistir, para que las entradas no se queden sin usar: actúa con responsabilidad.



Kultur Bira udako kultur eskaintza bermatzeko helburuarekin sortu genuen, iaz, Usurbilgo hainbat eragilek udalarekin elkarlanean, Covid19ak eragindako osasun krisiaren aurrean. Urtebete geroago, osasun krisiak bere horretan jarraitzen duenez, eta izan zuen arrakasta tarteko, Kultur Biraren formatuari eustea erabaki dugu. Unean uneko segurtasun neurriak bermatuta izango dira, eta, ildo horretatik, aurrean ere eskaera bera egin nahi diegu herritarrei: ekimen bakoitzaren argibideak irakurri eta begirune osoz jarrai ditzaten, norberarena ez ezik, guztion osasuna zaintzeko hartutako neurriak diren heinean.

Neurri nagusienetako bat ekitaldi bakoitzean bil daitekeen jende kopuruarena da. Ezinbestean mugatu behar dugu edukiera, segurtasun neurriak bermatzeko. Horretarako, ekitaldi bakoitzean zenbat jende bil daitekeen zehaztu dugu, beti ere, ahalik eta herritar gehienengana iristeko asmoz. Iaz bezala, sarrerak modurik bidezkoenean banatzeko asmoz, usurbilkultura.eus webgunearen bitartez eskatu behar dira sarrerak. Ekitaldi bakoitzean izena eman dutenen artean zozketa egingo dugu: erabiltzaile bakoitzarentzako sarrera kopurua mugatua izango da, ekitaldi motaren arabera.

Usurbildarrek ekitaldietara joateko erabateko lehentasuna izango dute. Dena den, ekitaldiren batean ezarritako gehieneko jende kopuruak izena ematen ez badu, usurbildarrak ez direnei ere sarrerak eskuratzeko aukera emango zaie.

**Kultura hauspotu nahi eta behar dugulako, bueltan da Kultur Bira.**

El año pasado creamos la Kultur Bira de Usurbil con el propósito de garantizar la oferta cultural en verano, organizada conjuntamente entre varios grupos de Usurbil y el ayuntamiento, como respuesta a la crisis sanitaria creada por el Covid19. Un año después, teniendo en cuenta que la crisis sanitaria continua, y el proyecto fue exitoso, hemos decidido dar continuidad al formato de Kultur Bira. Se garantizarán las medidas de seguridad vigentes, y, en ese sentido, queremos hacerles la misma petición a quienes se animen a tomar parte en la Kultur Bira: que sigan las instrucciones de cada evento respetuosamente, ya que son medidas pensadas para cuidar de la salud de todos y todas.

Una de las medidas principales será la del aforo: es inevitable limitarlo para poder cumplir con las medidas de seguridad. Para ello, hemos determinado cuánta gente podrá acudir a estos eventos, intentando llegar a cuanta más gente sea posible: la cantidad de entradas a solicitar dependerá del tipo de evento. Al igual que el año pasado, las entradas deberán solicitarse mediante la página web usurbilkultura.eus, para repartir las entradas de manera justa. Las entradas se sortearán entre todos y todas las usuarias que se inscriban en cada evento.

Los y las usurbildarras tendrán prioridad absoluta para acudir a los eventos. Aún así, si en algún evento no se suscribe el máximo de personas permitido, se permitirá la inscripción de gente que no reside en Usurbil.

Porque queremos y necesitamos impulsar la cultura, Kultur Bira está de vuelta.

### ORBELDI DANTZAN I: HAURREN EMANALDIA

17:00  
 ARTZABALGO FRONTOIA (EGURALDIAREN ARABERA, HERRIKO FRONTOIAN)

Orbeldi Dantza Taldeko haurrek ikasturtean zehar landutako dantzak eskainiko dizkiete herritarrei. Euskal Herriko txoko askotako dantzekin gozatu ahal izango dugu.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
 \*Herritar bakoitzak lau sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

### TRAPU ZARRA: "TURISTREATZEN"

17:00  
 ARTZABALGO FRONTOIA (EGURALDIAREN ARABERA, HERRIKO FRONTOIAN)

Bidaia agentzia batek, "bakoitzaren nahierara sortutako bidaia birtualen" promozioa egin du. Emakume bat sarituko dute itsas-bidaia birtual batekin, eta bidaia zuzenean antolatuko dute. Bere fantasia guztiak askatuko dira bidaia honetan.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
 \*Herritar bakoitzak lau sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

### ANTTON TELLERIA "NEKATUTAK"

20:00  
 AGIÑAKO ELIZA ZARRA (KANPOAN)

NEKATUTAK izeneko ikuskizunean, Antton Telleria zuzentasunaren mugak esploratzen saiatuko da (ikuskizunaren izenetik hasita). Barre eginarazteko helburu bakar eta sakratuarekin, "delikatuak" izan daitezkeen zenbait kolektibo aipatuko ditu: psikologoak, ETA, Ertzaintza... Eta, nola ez, polemikoenak: irakasleak.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
 \*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

### IÑORKIÑAK

20:00  
 AGIÑAKO ELIZA ZARRA (KANPOAN)

Gurean izango dugu herriko triki pop taldea. Berrikuntzekin datoz gainera, Natali Izagirre eta Ixak Arrutiren parte hartzearekin.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
 \*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



# EKN 13



## “SUHARRA” DOKUMENTALA

19:00

*SUTEGI ARETOA*

Galtzeko zorian dagoen bizitza berreskuratzea beharrezkoa den momentu honetan, inoiz azaldu gabeko gure kulturaren parte diren bertako ganadu suharren historia kontatzen du dokumentalak.

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



# EKN 19



## ARTIXTEN GAUA

20:00

*AGIÑAKO ELIZA ZARRA (KANPOAN), TXOKOALDE ETA SKATE PARK-A*

Aldi berean egingo diren hiru emanalditan herriko artixtetaz gozatzeko aukera paregabea izango da. Ekitaldi desberdinak izango dira, parte-hartze zabalekoak, formatu txikian.

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



# EKN 18



## ORBELDI DANTZAN II: HAURREN EMANALDIA

17:30

*ARTZABALGO FRONTOIA (EGURALDIAREN ARABERA, HERRIKO FRONTOIAN)*

Orbeldi Dantza Taldeko haurrek ikasturtean zehar landutako dantzak eskainiko dizkiete herritarrei. Euskal Herriko txoko askotako dantzekin gozatu ahal izango dugu.

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak lau sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.





## KOLORE FESTA

17:00  
*ARTZABALGO FRONTOIA (EGURALDIAREN ARABERA, HERRIKO FRONTOIAN)*

Marrazketa saioa. Norberak bere margoak ekarri beharko ditu, baita karpeta bat ere, euskarri bezala erabiltzeko. Bukaeran, opariak zozketatuko dira parte hartzaile guztien artean.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak lau sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

## NEONA

21:30  
*UDARREGIKO GUNEA*

NEONA izenpean eraberrituta dator herrian sorturiko taldea. Ilargi berriaren antzera, beste aurpegi bat erakutsiko dute oraingoan.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

## AMAK

21:30  
*UDARREGIKO GUNEA*

Lau izenen lehen letrarekin osatutako trikiti, pandero eta lau ahotsen taldea da Amak: Alaitz Telletxea (Alaitz eta Maider), Maixa Lizarribar (Maixa ta Ixiar), Amaia Oreja eta Kristina Solano (M-n Ezten). Euskal Herriko folk musikaren ertzak betiko moldeetatik atera eta ikuskizun bitxia eskainiko digute hamaika bariazio edo konbinazioekin.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



## AUPA STRINGS TALDEAREN EMANALDIA

18:00  
*KIROLDEGIA*

Musika klasikoa, heavy metala edota bluesa era naturalean fusionatzen ditu familiako gazteei (6-12) zuzenduriko String Jukebox ikuskizun parte-hartzaileak. Antzerki-kutsua duten eszenak, jolas, erritmo, sormen eta umorez beterik daude, elkarrekin musika sortu, beat-box modura komunikatu edota poesia rap bihurtzeko.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak lau sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

## BERTSO SAIOA

19:00  
*UDALETXEKO PLAZA (EGURALDIAREN ARABERA, HERRIKO FRONTOIAN)*

Bertsolariak: Miren Artetxe, Agin Laburu, Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

## BERTSIO GAUA

22:00  
*UDARREGIKO GUNEA*

Bueltan da, urtebeteko hutsunearen ondoren, Usurbilen hain kuttuna dugun ekitaldia: Bertsio Gaua. Herriko musikari eta saltseroak, elkarlanean hainbat musika talde ezagunen bertasioak burutuko dituzte.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

EKAINAK

**11**

ORBELDI DANTZAN I: HAURREN EMANALDIA  
TRAPU ZARRA: "TURISTREATZEN"  
ANTTON TELLERIA: "NEKATUTAK"  
INORKIÑAK

EKAINAK

**13**

"SUHARRA" DOKUMENTALA

EKAINAK

**18**

ORBELDI DANTZAN II:  
HAURREN EMANALDIA

EKAINAK

**19**

ARTIXTEN GAUA

UZTAILAK

**1**

KOLORE FESTA  
NEONA  
AMAK

UZTAILAK

**2**

AUPA STRINGS TALDEAREN EMANALDIA  
BERTSO SAIOA  
BERTSIO GAUA



UZTAILAK

**3**

IRATXOEN OPARIAREN BILA  
GAZTE OLINPIADAK  
MIHISE  
ROTTEN XIII

UZTAILAK

**4**

ORBELDI DANTZAN III:  
HELDUEN EMANALDIA  
PURO RELAJO  
BULEGO

UZTAILAK

**9**

UGAITZ AGIRRE:  
"NON DAGO AMAIA?"  
VIAFARA

UZTAILAK

**10**

HERRI KIROL EGUNA

UZTAILAK

**11**

ANDONI EGAÑA: "NERETIK"

UZTAILAK

**17**

FLOXBIN  
IDOIA ASURMENDI

### IRATXOEN OPARIAREN BILA

10:00  
HERRIAN BARRENA

Gauetz eta ezkutuan ibili ohi dira iratxoak magia eta jolas bereziak sortzen, egun argitan herritarrei eskaintzeko. Mezu bat iritsi da duela gutxi usurbildarrentzako zerbait prestatua dutela esanez. Ez dugu askorik ulertu eta zuen laguntza behar dugu argitzeko: lagunduko diguzu?

Plataformatik eta taldeka izen emateko aukera egongo da, 10 laguneko taldeak gehienez.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak lau sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

### GAZTE OLINPIADAK

17:00  
MIKEL LABOA PLAZA

Mikel laboatik hasita herrian zehar talde txikitan erronka ezberdinak! Bikote edo hirukoteka izena eman ostean, antolatzaileek osatutako taldeetan burutuko da dinamika.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak hiru sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



### MIHISE

21:30  
UDARREGIKO GUNEA

Mihise Usurbilgo rock talde berria da. Hotzikararen errautsetatik 5 urte lanean egon eta gero, 2020an kaleratutako Kronik@ disko kontzeptuala aurkezten ari dira.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

### ROTTEN XIII

21:30  
UDARREGIKO GUNEA

Rotten XIII Tafallan sortutako punk-rock musika-taldea da. 2017an sortu zuten Zartako-K, Odolkiak Ordainetan eta Patada Oi! taldeetako kideek.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



### PURO RELAJO

18:00  
*ARTZABALGO FRONTOIA (EGURALDIAREN ARABERA, HERRIKO FRONTOIAN)*

2014an kaleratu zuen lehenengo diskoa Oibarko (Nafarroa) taldeak, eta ordutik, guztira, zazpi kaleratu ditu. Arrakasta itzela du Puro Relajok mariatxizaleen artean. Euskal abesti ezagun ugarien bertsoak ere egiten dituzte, euren doinu propioak erantsiz.

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



### BULEGO

22:30  
*UDARREGIKO GUNEA*

Bulego taldeak 2021 urterako prestatu duenaren hainbat zertzelada plazaratuko ditu. Urtebeteko ibilbidea baino egin ez duen arren, pop atsegin eta dantzagarria euskara hutsean egiten duen taldea dugu.

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



### ORBELDI DANTZAN III: HELDUEN EMANALDIA

18:00  
*ARTZABALGO FRONTOIA (EGURALDIAREN ARABERA, HERRIKO FRONTOIAN)*

Baztango mutil-dantzak eta Oñatiko korpus-dantzak taularatuko dituzte Orbeldiko dantzariak.

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.  
\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.





# UZT 9



UGAITZ AGIRRE:  
'NON DAGO AMAIA?'

20:00

*AGIÑAKO ELIZA ZARRA (KANPOAN)*

Amaiak ezkutaketan jolastu nahi, eta zenbatzen hasterako, desagertu da begien bistatik. Pailazoa metropoli zoroan murgildu da 'non zaude Amaia?' oihuka eta oihuka, baina neskatoaren arrastorik topatu ezinda.

Literatura, musika, irudiak, antzerkia eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna da 'Non dago Amaia?', ikuslea emozioz beteriko bidaia egitera gonbidatzen duena.

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



# VIAFARA

20:00

*AGIÑAKO ELIZA ZARRA (KANPOAN)*

Viafara 2019an eratzen hasi ziren musika taldea da. Su txikian eta maitasun osoarekin gauzatzen ari den proiektua dugu. Taldea Patxi Gabilondok (baxua eta ahotsak), Aritz Zabaletak (gitarra eta ahotsak), Jon Guadixek (gitarra eta ahotsak) eta Iñaki Irazustak (bateria eta ahotsak) osatzen dute. Rock and rollak hiltzen jarraitu behar du!

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



# UZT 10



HERRI KIROL EGUNA. GOIZEKO SAIOA

12:00

*DEMA PLAZA*

Goizeko saioan herritarren arteko *desapiyo* ederraz gozatzeko aukera izango dugu herriko dema plazan. 1800 kiloko Ur Epel harritik tiraka ariko dira 20 minutuz bi hirukote hauek. Parte hartzaileak: Aitor Alkorta Etxeberria, Iurgi Mendiluze Zuloaga, Berdaitz Iarrarte zuloaga  
Aimar Zuloaga Segurola  
Imanol Zaldua Unanue  
Gabi Sarasola Ibarгойen

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



HERRI KIROL EGUNA. ARRATSALDEKO SAIOA

18:00

*USURBILGO FRONTOIA*

Arratsaldeko saioan kronometroaren beharrik ez da izango. Aizkolari eta harri-jasotzaile banaz osaturiko bi bikote lehia bizian arituko dira. Udane Ostolaza eta Gorka Etxeberria arituko dira harri-jasotzen; Aritz eta Jon Esnal anaiak aizkoran. Erronka ikusgarria izango da frontoian!

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.



# UZT 11



ANDONI EGAÑA: "NERETIK"

20:00

SANTUENEA

Bere bizitzari oso loturiko egiazko gaiak jorratu ditu Andoni Egañak bertso-sorta batean, eta "Neretik" emanaldia sortu. Aspalditik zuen kezka batetik sortu du ikuskizuna Egañak: bertso-paper ugari eta onak egiten direla, baina ez direla sozializatzen. Horregatik erabaki zuen bere sorta sortu eta emanaldiak egitea, Jon Ostolaza trikitilariarekin batera.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

# UZT 17



FLOXBIN

20:00

AGIÑAKO ELIZA ZARRA (KANPOAN)

Floxbin 2013an sortutako talde usurbildarra da. Metal estiloa ardatz duten abesti indartsu eta hitz zorrotzekoak dira eurenak.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

IDOIA ASURMENDI

20:00


AGIÑAKO ELIZA ZARRA (KANPOAN)

Idoia Asurmendiren kasua euskal eszenako berezietako bat da. Ahoz aho eta gairik argitaratu gabe, kontzertu deigarriak lotzea lortu zuen, eta "Sold Out" kartela jarri zuen Jazzaldian, Txillida Leku Museoan eta Donostia Festibalean. Vitoria-Gasteizko Jimmy Jazz, Bilboko Bidebarrieta eta Donostiako Antzoki Zaharra bete ditu udaberri honetan. Idoia Asurmendi, abeslaria, gitarra eta teklatuak. Joanes Ederra, baxua eta kontrabaxua.



Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

\*Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.






San Estebango  
Jai Batzordea



Usurbilgo  
Jai Batzordea

**NOVA**



Usurbilgo Urtulu